



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

DENBORALDIA 24 TEMPORADA
25

otsailak 27-28 febrero

Hastapeneko abonua
Abono de Iniciación

© Charlie Best

La ley del silencio

I. Farrington:

G. Gershwin:

G. Gershwin / R. Russell Bennett:

L. Bernstein:

L. Bernstein:

A party with Auntie

Segunda rapsodia para piano y orquesta

Gershwin in Hollywood

Divertimento para orquesta

On the Waterfront, Suite sinfónica

Wayne Marshall, piano y director



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 14,42 €-tik aurrera

Gaztea (<30):
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako leihatila
www.bilbaoorkestra.eus





Wayne Marshall,
piano eta zuzendaria/piano y director

I

I. FARRINGTON
(1977)

A party with Auntie *

GEORGE GERSHWIN
(1898 - 1937)

Bigarren rapsodia piano eta orkestrako*
Segunda rapsodia para piano y orquesta*
Wayne Marshall, pianoa / piano

G. GERSHWIN / R. RUSSELL BENNETT Gershwin in Hollywood*
(1898 - 1937) (1894-1981)

II

L. BERNSTEIN
(1918 - 1990)

Divertimentoa orkestrarako
Divertimento para orquesta

I. Sennets and Tuckets

II. Waltz

III. Mazurka

IV. Samba

V. Turkey Trot

VI. Sphinxes

VII. Blues

VIII. In memoriam; March: "The BSO forever"

On the Waterfront, Suite sinfonikoa*
On the Waterfront, Suite sinfónica*

*Lehen aldiz BOSen eskutik - Primera vez por la BOS
Iraup. / Dur: 100' (g.g.b./aprox.)



Hastapeneko abonua
Abono de Iniciación



Egitarauaren oharak

MUSIKA MUGIMENDUAN

Gaurko kontzertuak Ameriketako Estatu Batuetara eramango gaitu, bertako kultura urbanoak herritarrengan eragin handia zuen garai batera. Baita herrialde horren mugetatik harago ere. Herri-ondare horren zati handi bat antzerki musikarekin eta zinemarekin lotuta dago, eta, Broadwayko eszenari lotutako talde txikienetatik edo jazz-lokaletatik hedatuta, partitura horiek ikaragarri oparoak izan ziren orkestra sinfonikoen errepertorioarako.

Hala ere, Estatu Batuetako musikaren prelude gisa, lain Farrington (Hitchin, Hertfordshire, 1977) ingelesaren A party with Auntie entzungo dugu. Tituluaren itzulpena "Festa bat izebarekin" da (ikus-entzunezko musika oso gogoko duen izeba bat da, seguruenik). Baina pieza horren lengoaiak hasieran aipatutako leku- eta denbora-koordinatuak betetzen ditu, eta oso egokia da bi musikari handiren ekoizpenaren hasierako gonbidatu gisa (halakotzat kalifikatu zuen The Guardian egunkariak estreinaldian egindako kritikan). 2022an konposatu zuen BBCren mendeurrena ospatzeko, eta, horregatik, ikus-entzule ingelesek ezagutzen dituzten irrati eta telebistako sintonia ugari biltzen ditu (albisteetakoak, entretenimendu-programetakoak, kirol-programetakoak...). Nolanahi ere, konposizioaren izaera dibertigarri eta arina eta metrika kementsuaren estimulua, doinu gogoraerazetara josia, atseginak dira belarri guztientzat. Ideien saski-naskia instrumentazio askotariko eta erakargarri batek koloreztatzen du. Gai nagusi batek josten du dena, eta bultzada geldiezina ematen dio hain freskagarria eta bizia den konposizioari.

Pieza urte hartako Proms kontzertuen azken gauerako idatzi zen hasiera batean, baina, Isabel II.aren heriotzaren ondorioz, kontzertua bertan behera geratu zen. Hala, festa horretan entzun beharreko musikak errespetuz itxaron zuen 2022ko urriaren 21era arte, orduan entzun baitzen lehen aldiz Londresko Barbicanen. Partitura BBCren Orkestra Sinfonikoaren atrilen gainean jarri zen, eta Dalia Stasevskak zuzendu zuen.

Eta, konposizio hori entzun ondoren, musikari handien txanda iritsiko zaigu. George Gershwinen arabera (Brooklyn, 1898 - Beverly Hills, 1937), "jazza Amerikan bildutako energia guztiaren emaitza da". Hamar urterekin hasi zen pianoa jotzen, eta hogeita bat urterekin bere lehen partitura idatzi zuen komedia musikal baterako. Biak izan ziren bere bizitza profesionalaren ardatzak: pianoa, zeinaren bidez bere melodia-iturri agortezina adierazten baitzuen, eta New Yorkeko musika-eszena, ehunka abestiz beteta, horietako asko Gershwinenak.

New Yorkeko kaleetan entzuten ziren herri-abestien osagaiak hartu zituen: jazza, ragtimea eta bluesa, eta, horietatik abiatuta, estilo bereizgarria sortu zuen. Hala ere, Europako herentzia klasikoarekin ere lotu nahi izan zuen, eta, horretarako, tradizioari elkartutako generoetako partitura ugari idatzi zituen, hala nola kontzertua, opera edo rapsodia. Bere helburua jazza lengoai "klasikoarekin" adiskidetzeara zen, edo, garai hartan esaten zen bezala, "Tin Pan Alley Carnegie Hallera eramatea".

Piano eta orkestrarako bigarren rapsodia 1931ko Delicious filmaren soinu-bandaren parte izan zen. Baina konpositoreak filmerako idatzitako partitura horrek eta beste batzuek jasandako murrizketek pieza independente gisa estreinatzeko erabakia hartzea eraman zuten. Zenbait moldaketa eta ezabatze egin ondoren, Bostongo Orkestra Sinfonikoa estreinatu zuen 1932ko urtarrilaren 29an. Konpositoreak berak jo zuen pianoa eta Serge Koussevitzky izan zen zuzendaria. Kritikak esan zuen pieza "jokamolde neurrigabeak eta

Notas al programa

LA MÚSICA EN MOVIMIENTO

El concierto de hoy nos traslada a Estados Unidos y a una época en que su cultura urbana tenía un enorme impacto sobre la ciudadanía. Incluso más allá de sus fronteras. Gran parte de ese patrimonio popular está asociado al teatro musical y al cine y, trascendiendo a las agrupaciones más pequeñas ligadas a la escena de Broadway o a los locales de jazz, esas partituras fueron un rico nutriente para el repertorio de las orquestas sinfónicas.

Sin embargo, como prelude a esta música estadounidense, se nos cuela un inglés, lain Farrington (Hitchin, Hertfordshire, 1977), con su A party with Auntie, que podría traducirse como "Una fiesta con la tía" (debe ser una tía que disfruta mucho con la música de los audio-visuales). Pero el lenguaje de esta pieza sigue las coordenadas espacio-temporales mencionadas más arriba y está muy bien traída aquí como telonera -así la calificaba el periódico The Guardian en la crítica que hizo en el momento del estreno- de la producción de dos grandes. Fue compuesta en 2022, para celebrar el centenario de la BBC y es por ello que recoge numerosos temas de sintonías de radio y televisión -noticias, programas de entretenimiento, deportivos...-, conocidas por el público inglés. En todo caso, su carácter festivo y ligero y el estímulo de una métrica enérgica cosida a unas tonadas pegadizas son agradables para todos los oídos. El popurrí de ideas está coloreado por una instrumentación variada y atractiva e hilvanado con un tema principal que da un empuje imparable a una composición que resulta tan refrescante como vigorosa.

La pieza había sido escrita originalmente para la última noche de los Proms de aquel año pero, debido al fallecimiento de Isabel II, este concierto se canceló y la música que iba a sonar en la fiesta debió esperar respetuosamente para ser escuchada por primera vez el 21 de octubre de 2022, en el Barbican de Londres. La partitura fue colocada sobre los atriles de la Orquesta Sinfónica de la BBC, dirigida por Dalia Stasevska.

Y a continuación, los grandes. George Gershwin (Brooklyn, 1898 - Beverly Hills, 1937), decía que "el jazz es el resultado de toda la energía almacenada en América". Empezó a tocar el piano a los diez años y con veintiuno escribió su primera partitura para una comedia musical. Ambos fueron los dos ejes de su vida profesional: el piano, a través del cual expresaba su inagotable fuente de melodías, y la escena musical neoyorkina, que se alimentaba de centenares de canciones, muchas de las cuales tuvieron a Gershwin por autor.

Tomó los ingredientes de la canción popular de las calles de Nueva York: el jazz, el ragtime, el blues y a partir de ellos, urdió su estilo característico. Sin embargo, también pretendió enlazarse con la herencia clásica europea y, para ello, escribió un buen puñado de partituras en géneros tan ligados a la tradición como el concierto, la ópera o la rapsodia. Su meta era lograr la reconciliación del jazz con el lenguaje "clásico" o, como se decía en aquellos momentos, "llevar el Tin Pan Alley al Carnegie Hall".

Su Segunda Rapsodia para piano y orquesta formó parte de la banda sonora de la película Delicious, de 1931. Pero los recortes que sufrieron ésta y otras partituras que el compositor había escrito para el film, le hicieron tomar la decisión de estrenarla como pieza independiente. Con varios retoques y algunas supresiones, fue estrenada por la Orquesta Sinfónica de Boston el 29 de enero de 1932, con el propio compositor al piano y Serge Koussevitzky en la dirección. La crítica dijo de ella que era una buena descripción



koktel-energia protagonista diren Amerika baten” soinu-deskribapen ona zela. Urte askotan alde batera utzi ondoren, gaur egun Gershwinen obra bikainenetako bat dela jotzen da, eta konpositoreak berak zera esan zuen: “alderdi askotan, hala nola orkestrazioan eta forman, idatzi dudana obrarik onena da”.

Hasieran, filmaren ekoizpenean, Gershwinen “Manhattango rapsodia” izena eman zion piezari. Geroago, “New Yorkeko rapsodia” deitu zuen, eta azkenik “Rapsodia errematxeetan”. Izen horiek guztiak idazkera pianistiko bikainarekin ezin hobe bat etortzen dira, zeinak modernitateari atea ireki dizkion hiri zirraragarri eta harro baten erritmo urbanoa islatzen baitu. Hasierako perkusio-patroia, behin eta berriz errepikatzen diren motiboak, azentuak, azpimarratu etengabeak... Elementu horiek guztiak hiri boteretsu baten bizitasun geldiezinaren soinuak besterik ez dira. Erdiko atalak barealdi- eta nostalgia-oasi bat ekartzen digu zalapartaren erdian, mestizajea aberatsa den komunitate baten aurpegi aldakorra islatuz. Gero mugimendua bueltatzen da, eta musika amaiera apoteosiko batera eramaten du.

Gershwinen abesti asko ere konposatu zituen, eta bere anaia Ira kanta-idazle ezin hobe izan zen. Haren olerki antikonbentzionalak primeran egokitzen ziren Georgeren musikara. Elkarrekin, 1920ko hamarkadako giroa jaso zuen herri-abesti mota sofistikatu bat sortu zuten, eta Broadway beren zerbitzura jarri zuten. Ondoren, Hollywoodekin hasi zen lanean. Soinudun zinemaren lehen urteak ziren, teknologiak azkar egiten zuten aurrera eta estudioek konpositoreak buru-belarri bilatzen zituzten. Film musikalen mundu berria goren uanean zegoen konpositorearen zerbitzura jarri zen, eta erronka hura zirraragarria zen gaztea eta talentuduna zen gizon harentzat. Hala ere, bazegoen alde txar bat: zinemaren muinean egileari bere obraren gainean ematen zioten kontrol eskasa. Dena den, Gershwinen musika idatzi zuen Fox, Goldwyn Pictures Corporation eta RKOra, Hollywoodeko urrezko garaiko bost konpainia handienetako hiru. Estudio horietarako, Shall We Dance, Damsel in Distress eta The Goldwyn Follies filmetarako soinu-bandak idatzi zituen, eta horietako batzuen emanaldiak gaur egun entzuten ditugu.

Pentagrama horietan, zalantzarik gabe, moldatzailea kontuan izan behar da, musikaren orkestrazioaren zati garrantzitsua baita. Robert Russell Bennett (Kansas City, 1894 - Manhattan, 1981) konpositorea izan zen baita ere, baina ezagunagoa da Broadwayko eta Hollywoodeko hainbat musikaletan lan egin zuelako eta musikari askoren partiturak orkestratu zituelako, hala nola: Irving Berlin, Jerome Kern, Cole Porter, Richard Rodgers eta Gershwin bera. Azken horren kasuan, lankidetzara estua izan zen, eta Bennettek —orkestrazioaren teknika menderatzen zuen— Gershwinen jarraibideei jarraitzen zien edo iradokizunak egiten zizkion. Gershwinen heriotzaren ondoren, Bennettek bere lanetako batzuk orkestratzen jarraitu zuen, hala nola Gershwin in Hollywood, non belarriekin ikusten baititugu Ginger Rogers eta Fred Astaire dantza-pistatik irristatzen, edo Joan Fontaine gazte aristokrata konpositore iparramerikar batez maitemintzen.

Leonard Bernstein (Lawrence, Massachusetts, 1918 - New York, 1990) musikari poliedrikoa izan zen: pianista, konpositorea, orkestra-zuzendaria eta musika-lengoiaren dibulgatzaile trebatu eta kartsua. Haren ustez, “ikus-entzuleak ez dira piztia handi bat, baizik eta organismo adimendun bat, gehienetan ulermena eta ezagutza nahi dituen”, eta, hizkuntza berri eta ausarta erabiliz, ahalegin handia egin zuen “musika klasikoa demokratizatzeke”, ikus-entzuleen belarriak ikuskizun sinfonikora hurbiltzeko modu berriak bilatuz, erabat gozatu ahal izateko.

sonora de una “América de modales desenfrenados y energía de cóctel”. Hoy día está considerada una de las grandes obras de Gershwin arrinconadas durante años y él mismo dijo que era “en muchos aspectos, como la orquestación y la forma, lo mejor que he escrito”.

En un principio, durante la producción de la película, Gershwin había llamado a esta pieza “Rapsodia de Manhattan”. Más tarde, la rebautizó como “Rapsodia de Nueva York” y finalmente como “Rapsodia en remaches” y todas estas denominaciones casan bien con una escritura pianística brillante que capta el ritmo urbano de una ciudad palpitante y orgullosa de su apertura a la modernidad. El patrón percusivo con que da comienzo, los motivos reiterados, los acentos, el subrayado insistente, todos ellos no son más que sonorizaciones de la vitalidad imparable de una urbe poderosa. Una sección central nos trae un oasis de calma y nostalgia en medio del bullicio, reflejando el rostro cambiante de una comunidad rica en su mestizaje. El trájín estalla de nuevo, llevando la música a una conclusión apoteósica.

Gershwin fue también un inspiradísimo compositor de canciones y encontró un letrista insuperable en su hermano Ira, cuyas poesías anticonvencionales se adaptaban perfectamente a la música de George. Juntos produjeron un tipo sofisticado de canción popular que captó el pulso de la década de 1920 y que puso Broadway a sus pies. Después llegó el contacto con Hollywood. Eran los primeros años del cine sonoro, cuando la tecnología avanzaba con rapidez y los estudios buscaban compositores con ahínco. El nuevo mundo de las películas musicales se ponía a los pies de un compositor en la cresta de la ola y el reto era emocionante para este hombre joven y dotado. Sin embargo, había algo que no encajaba: el escaso control que, en la meca del cine, daban al autor sobre su obra. En todo caso, Gershwin escribió música para la Fox, para la Goldwyn Pictures Corporation y también para la RKO, tres de las cinco grandes compañías de la época dorada de Hollywood. Para estos últimos estudios compuso las bandas sonoras de Shall We Dance, Damsel in Distress y The Goldwyn Follies, algunos de cuyos números escuchamos hoy.

En estos pentagramas hay que tener presente, sin duda, al arreglista, parte importante en la vestidura orquestal de la música. Robert Russell Bennett (Kansas City, 1894 - Manhattan, 1981) fue también compositor, aunque es más conocido por su trabajo en numerosos musicales de Broadway y Hollywood, orquestando partituras de músicos como Irving Berlin, Jerome Kern, Cole Porter, Richard Rodgers o el propio Gershwin. En el caso de éste, la colaboración fue estrecha y Bennett -que era quien dominaba la técnica de la orquestación- seguía las indicaciones de Gershwin o le ofrecía sugerencias. Tras el fallecimiento de éste, Bennett siguió siendo requerido para orquestar algunas de sus obras, como Gershwin in Hollywood, en la que vemos con los oídos como Ginger Rogers y Fred Astaire se deslizan por la pista de baile, o como la joven y aristocrática Joan Fontaine se enamora de un compositor norteamericano.

Leonard Bernstein (Lawrence, Massachusetts, 1918 - Nueva York, 1990) fue un músico de perfil poliédrico: pianista, compositor, director de orquesta y divulgador preparadísimo y apasionado del lenguaje de la música. Opinaba que “el público no es una gran bestia, sino un organismo inteligente, que la mayor parte de las veces ansía la comprensión y el conocimiento” y, con un lenguaje renovado y desenfadado, puso gran empeño en “democratizar la música clásica”, buscando nuevas maneras de acercar los oídos del público al espectáculo sinfónico para que pudiera disfrutarlo plenamente.



Divertimentoa orkestrarako izenburuak berak konposizioaren asmoa adierazten du. Suite moduan eskaintzen digu, eta zortzi bagatelek —ez gehiago, ez gutxiago— osatzen dute.

Obra Bostongo Orkestra Sinfonikoari eskaini zion “maitasunez”, lehen mendeurrena ospatzeko egindako enkargua izan baitzen. Orkestra sinfoniko horrexek estreinatu zuten 1980an, Seiji Ozawaren zuzendaritzapean.

Konpositoreak berak “pieza dibertigarri” gisa kalifikatu zuen. Baina, ongi pasatzea nahi izateaz gain, Bernsteinek konposizioaren musikaz kanpoko bi ardatzak —Bostongo orkestra eta bere urteurrena— hura osatzen duten pieza guztietan presente egotea nahi izan zuen. Horregatik, “si” (“B” musika-notazio anglosaxoiaren sistemari) eta “do” (“C” sistema horretan) notak funtsezkoak dira diskurtsoaren garapenean. Hala, agerikoak dira konposizioari hasiera ematen dion emanaldian (Sennets and Tuckets), non, hasieran, bi notak (si eta do) bata besteari atzetik errepikatzen diren eta, azkenean, denboran bat egiten duten, talka disonantea eraginez. Ondoren, samurtasunez dislokaturako bals bat dator, ez baitago dagokion konpas hirutarrean idatzita. Txaiikovskiren Bosgarren Sinfoniako bals dotore eta desitxuratu apartari keinu egiten dio. Mazurkan haizeak eta harpa bakarrik entzuten ditugu. Oraingoan, oroigarria beste Bosgarren baterako da, Beethovenena, oboeak lehen mugimenduan duen esku-hartze emozionalaren aipuaren bidez. Erregistroz eta orkestraz aldaturak, samba bat dator jarraian, bizia eta koloretsua, latinoamerikarrari keinu eginez. Bernsteinek beste partitura batzuetan ere landu zuen estilo hori. Ondoren, Turkey Trot komikoak, bat-bateko intentsitate-aldaketekin eta azentu desplazatuekin, herrenka dabilen indioilar baten trosta gogoratzen du itxuraz. Horren ostean, Esfingeak agertzen eta desagertzen dira, Blues motel eta sensualari bide emanez hasperen batean. Metalak eta perkusioa dira protagonistak, eta Bernsteinek Bostongo gau-klubei buruz zituen oroitzapenak irudikatzen dituzte. Amaitzeko, martxa bat dator, Bostongo Sinfonikoarekin lotura izan zuten In memoriam oroitzapen labur baten ondoren.

Zortzi estampa horien bidez, Bernsteinen asmoa zera izan zen, bere hitzetan: “gaztaroan izan nituen esperientziak islatzea, hemen entzun bainuen lehen aldiz orkestra-musika”. Izan ere, musikaria Bostonen hazi zen eta Harvarden graduatu zen. Gainera, Tanglewood Music Centerreko ikasle izan zen. Bostongo Sinfonikoari elkartutako eliteko musika-akademia zen, eta Serge Koussevitzky sortu zuen 1940an. Geroago, Bernsteinek akademia horretako hezkuntza-programen garapenean aktiboki parte hartu zuen, eta Bostongo Orkestra zuzendu zuen askotan.

Bere katalogoan soinu-banda bakarra dago: “On the waterfront”, guretzat “Isiltasunaren Legea”. Bernsteinen ustez, zineman musika “garrantzi gutxi duen zatia da: musikak estalitako lerro mintzatua lerro galdua da, eta, beraz, galera bat da filmarentzat; eta mintzaldiak erabat ezabatutako musika-konpasa, berriz, galdutako musika-konpasa da”. Horregatik, ziurrenik, 1954an Elia Kazanen filma estreinatu ondoren, Bernstein bere musika berreskuratzen eta arreta guztia soinuari eta ez irudiei ematen zion publiko bati eskaintzen saiatu zen. Hala ere, bazekien kalitate handiko zerbait konposatu zuela. Horixe adierazi zuen The New York Timesen izandako elkarrizketa batean: “Partituraren xehetasun guztiei hain arreta handia eskaini nien, ezen agian filmaren zatirik garrantzitsuena iruditzen baitzitzaidan”. Soinu-banda, jakina, asko goretzi zuten, eta urte hartako Oscar sarietarako proposatu zuten, baina ez zuen irabazi.

Ya el título de su Divertimento para orquesta supone una declaración de intenciones y nos lo ofrece como una suite que, en este caso, no es más -ni menos- que la reunión de ocho ‘bagatelas’.

La obra está dedicada “con afecto” a la Orquesta Sinfónica de Boston, que había hecho el encargo para celebrar su primer centenario y que fue quien la estrenó, en 1980, bajo la dirección de Seiji Ozawa.

El propio compositor la calificó como “una pieza divertida”. Pero además de hacernos pasar un buen rato, Bernstein quiso que los dos ejes extra-musicales de la composición —recordemos, la Orquesta de Boston y su centenario— estuvieran presentes en todas las piezas que la articulan. Por esta razón, las notas “si” —“B” en el sistema de notación musical anglosajón y “do” —“C” en ese sistema— son fundamentales en el desarrollo del discurso y ya evidentes en el número con que da comienzo la composición, Sennets and Tuckets, donde al principio se suceden una y otra notas (si y do) y al final coinciden en el tiempo, provocando un choque disonante. Le sigue un Vals tiernamente dislocado al no estar escrito en un compás ternario —como le correspondería—, que supone un guiño a ese otro extraordinario vals elegante y distorsionado, el de la Quinta Sinfonía de Tchaikovsky. En la Mazurka solo escuchamos los vientos y el arpa y el recuerdo es ahora para otra Quinta, la de Beethoven, a través de la cita a la emotiva intervención que tiene el oboe en el primer movimiento. Cambiando de registro y de orquestación, llega una Samba, vital y colorista, con guiños a lo latino, estilo que también abordó Bernstein en otras partituras. Después, el cómico Turkey Trot que, con súbitos cambios de intensidad y acentos desplazados, parece evocar el trote de un pavo cojeando. Tras él, aparecen y desaparecen las Esfinges, como un suspiro que da paso al Blues, lento y sensual, en el que el protagonismo de los metales y la percusión hace referencia a los recuerdos que tenía Bernstein de los clubes nocturnos de Boston. Finaliza con una Marcha precedida por un breve recuerdo In memoriam para quienes estuvieron ligados a la Sinfónica de Boston.

La intención de Bernstein a través de estas ocho estampas fue, según sus propias palabras, “reflejar mis experiencias juveniles aquí, donde escuché mi primera música orquestal”. Y es que el músico había crecido en Boston y se había graduado en Harvard. Además, había sido alumno del Tanglewood Music Center, la academia de música de élite ligada a la Sinfónica de Boston que Serge Koussevitzky fundó en 1940. Más tarde, Bernstein tomó parte activa en el desarrollo de los programas educativos de dicha academia y también dirigió la Orquesta de Boston en numerosas ocasiones.

En su catálogo solo hay una banda sonora: “On the waterfront”, traducida para nosotros como “La ley del silencio”. Opinaba que en el cine la música es “la parte menos importante: una línea hablada cubierta por la música es una línea perdida y, por tanto, una pérdida para la película, mientras que un compás de música completamente borrado por el discurso es sólo un compás de música perdido”. Seguramente por ello, tras el estreno del film de Elia Kazan en 1954, Bernstein se afanó en recuperar su música y ofrecerla en exclusiva a un público que prestara toda su atención al sonido y no a las imágenes. Por otro lado, sabía que había compuesto algo de alta calidad. Así lo afirmaba en una entrevista a The New York Times: “Me había involucrado tanto en cada detalle de la partitura que me parecía tal vez la parte más importante de la película”. La banda sonora fue, desde luego, muy alabada y también nominada al Oscar de ese año, aunque no lo ganó.



Suite sinfonikoa 1955eko abuztuaren 11n estreinatu zen, Tanglewooden. Formatu horri esker, filmaren gai nagusiak jarraiko sei ataletan eskaini ahal izan zituen: maitasuna, indarkeria, zalantza, salaketa, barne-gatazka eta kode moralaren bilakaera. Pertsonaia nagusiaren gogo-aldarte guztiak (Marlon Brandok maisuki interpretatua), birbideratzen duen emakume biziak harengan duen eragina (ehun urte bete dituen Eva Maria Saintek bikain interpretatua) eta pertsonaiak inguratzen dituen giro likitsak partiturara josita daude.

Bernsteinek bete-betean murgiltzen gaitu gerraoste-garaiko portu-hondo zitaletan, komunitate-bizikidetzaren hondatze doilorra irudikatzen duten erritmo nahasien bidez. Akorde disonante eta azentu desplazatuen metrika hori instrumentazio koloretsu eta luze batek aberasten du —eta orkestra sinfoniko batean horren ohikoak ez diren baliabideekin luzatuta dago—. Bertan, harmonia eszeniko liluragarria sortzen dute saxofoiak eta harpak, bateriak eta hariak edo pianoak eta metalek.

Txirulek oihartzunean jotako tronparen hasierako iragarpen minberatik amaierako akorde dramatiko eta epikoetara iritsi arte, entzungo dugun traman indarkeria, bizitzaren gogortasuna eta ustelkeria ahulentzako etsai-ingurune baten protagonista nagusiak dira, zeina, hala eta guztiz ere, ez den gai maitasunaren indar menderatzailea eta borondatearen ahalmena gainditzeko. Hain zuzen, musikak eragiten duen tentsio dramatikoaren zati handi bat protagonistaren eraldaketan oinarritzen da. Halaxe adierazi zuen egileak obraren aurkezpenean: “suitearen material nagusiek metamorfosi ugari jasaten dituzte, ahal den neurrian filmaren fluxu kronologikoari jarraitzeko”. Eskrupulurik gabeko pertsona bortitz bat printzipioak dituen tipo batean bihurtzeko prozesuaren musika-irudikapen aparta da: musika eta Marlon Brando, ankerraren, damuaren eta samurtasunaren artean dantzatzen.

Gaur entzungo ditugun partitura gehienak mugimenduan zeuden irudien babesean sortu ziren. Zaila izango zaigu erabateko gelditasunean entzutea.

Mercedes Albaina

La suite sintónica se estrenó el 11 de agosto de 1955, en Tanglewood. Este formato le permitía ofrecer en un continuo de seis secciones los temas principales de la película: el amor, la violencia, la duda, la delación, el conflicto interno, la evolución del código moral. Todos los estados anímicos por los que pasa el personaje principal -magistralmente interpretado por Marlon Brando-, el influjo que ejerce sobre él la luminosa mujer que lo redime -encarnada de manera sublime por la centenaria Eva Maria Saint- y el ambiente sórdido que rodea a los personajes están cosidos a la partitura.

Bernstein nos sumerge de lleno en el paisaje de los bajos fondos portuarios en época de posguerra a través de unos ritmos furiosos que representan el deterioro ruín de la convivencia comunitaria. Esta métrica de acordes disonantes y acentos desplazados está enriquecida por una instrumentación colorida y extensa - ampliada aún con efectivos menos habituales en una orquesta sinfónica-, en la que, aquí sí, conviven en deslumbrante armonía escénica el saxofón con el arpa, la batería con las cuerdas o el piano con los metales.

Desde el quejumbroso anuncio de la trompa y su eco en las flautas, hasta los dramáticos y épicos acordes finales, asistimos a una trama donde la violencia, la dureza de la vida y la corrupción son la sustancia principal de un entorno hostil para los débiles que, a pesar de todo, es incapaz de vencer ni a la fuerza redentora del amor, ni al poder de la voluntad. De hecho, gran parte de la tensión dramática que desprende esta música está inspirada por la transformación del protagonista. Así lo señalaba su autor en la presentación de la obra: “los materiales principales de la suite sufren numerosas metamorfosis, siguiendo en la medida de lo posible el flujo cronológico de la propia película”. Extraordinaria representación musical del proceso de conversión de un violento sin escrúpulos en un tipo con principios: la música y Marlon Brando, oscilando entre lo salvaje, el arrepentimiento y la ternura.

La mayor parte de las partituras que disfrutamos hoy nacieron al calor de las imágenes en movimiento. Difícil será escucharlas en absoluta quietud.

Mercedes Albaina



Wayne Marshall, pianoa eta zuzendaria / piano y director



© Charlie Best

Wayne Marshall orkestra-zuzendaria, organista eta pianista britainiarra da, eta podiumean zein teklatuan dituen musikaltasunagatik eta moldakortasunagatik ezaguna da.

Koloniako WDR Funkhausorchesterreko zuzendari titularra izan da (2014-2020), eta Milango Giuseppe Verdi Orkestra Sinfonikoko zuzendari gonbidatu nagusia (2007-2013).

George Gershwin, Leonard Bernstein eta XX. mendeko beste hainbat konpositore estatubatuarren musika interpretatzeagatik da ospetsua. Honako obra hauek zuzendu ditu: Bernsteinen *Candide* (Deutsche Staatsoper Berlin eta Lyongo Opera Nazionale), *Mass* (Orchestre de Paris) eta *White House Cantata* (Netherlands Radio Philharmonic Orchestra), Harbisonen *The Great Gatsby* (Semperoper, Dresden), Heggien *Dead Man Walking* (Montreal Opera) eta *Porgy and Bessen* hainbat ekoizpen (Opera Comique de Paris, Washington National Opera, Dallas Opera eta Vienna Staatsoper).

Zuzendari gisa berriki izan dituen azpimarratzeko moduko momentuan artean honako hauek aipa ditzakegu, besteak beste: Berlingo Filarmonikoarekin izan zuen debut aparta (2021ean) eta honako hauekin ere debutatzea: Municheko Filarmonikoa, Tonhalle Zurich, Munich Rundfunk Orchestra, Frankfurt Radio Orchestra, Baltimore Symphony Orchestra, Seattle Symphony, Chicago Symphony, Vancouver Symphony Orchestra, Nashville Symphony eta Deutsches SymphonieOrchester Berlin.

Aldizka lan egin du Vienako Tonkünstler Orchestrarekin, Rotterdango, Osloko, Estrasburgoko eta Txekiako Orkestra Filarmonikoekin, RSO Viennarekin, Parisko Orchestrarekin, NDR BigBandekin eta baita BBCko abesbatzarekin ere, hainbat aldiz. Bakarlari, zuzendari eta telebistako iruzkingile gisa lan egin du BBC Promsetan.

Wayne Marshall, director de orquesta, organista y pianista británico, es mundialmente conocido por su musicalidad y versatilidad tanto en el podio como al teclado.

Ha sido director titular de la WDR Funkhausorchester de Colonia (2014-2020) y principal director invitado de la Orquesta Sinfónica de Milán "Giuseppe Verdi" (2007-2013).

Es un célebre intérprete de la música de George Gershwin, Leonard Bernstein y otros compositores estadounidenses del siglo XX. Ha dirigido *Candide* de Bernstein (Deutsche Staatsoper, Berlin y Ópera Nacional de Lyon), *Mass* (Orchestre de Paris) y *White House Cantata* (Netherlands Radio Philharmonic Orchestra), también *The Great Gatsby* de Harbison (Semperoper, Dresden), *Dead Man Walking* de Heggie (Montreal Opera) y numerosas producciones de *Porgy and Bess* (Opera Comique, Paris, Washington National Opera, Dallas Opera y Vienna Staatsoper).

Entre sus recientes highlights como director, figuran su aclamado debut con la Filarmónica de Berlín en 2021 y sus debuts con la Filarmónica de Múnich, la Tonhalle Zurich, la Munich Rundfunk Orchestra, la Frankfurt Radio Orchestra, la Baltimore Symphony Orchestra, la Seattle Symphony, la Chicago Symphony, la Vancouver Symphony Orchestra, la Nashville Symphony y la Deutsches SymphonieOrchester Berlin.

Ha trabajado regularmente con la Tonkünstler Orchestra de Viena, las Orquestas Filarmónicas Checa, de Rotterdam, Oslo y Estrasburgo, la RSO Vienna, la Orchestre de Paris, la NDR BigBand; con el coro de la BBC en varias ocasiones; y ha actuado como solista, director y comentarista de televisión en los BBC Proms.



2021ean, Edinburgoko Nazioarteko Jaialdian egin zuen debuta, Rodgers eta Hammersteinen musikarekin, Danielle de Nieserekin kontzertuan, eta, 2022an, Scottish Chamber Orkestrarekin.

2025/2026 denboraldian, bira luze bat egingo du Alemanian eta Erresuma Batuan barrena Alemaniako Orkestra Nazionalarekin. 2025eko martxoan, Japonian arituko da zuzendari lanetan Hiroshima eta Nagoyako orkestratan. Urte bereko apirilean, Wayne Marshallek Peter Grimesen ekoizpen osoa zuzenduko du Lyongo operan, eta ekainean Udaberriko Jaialdian egongo da Txekiako Irratiko Orkestrarekin.

2025eko udan, Wayne Marshallek Leipzigezko MDR Orchestra zuzenduko du, ondoren Flanders Youth Orchestra eta Bruselako Filarmonikoa, eta urrian Vienako Musikvereinen egongo da Tonkünstler Orkestrarekin.

Waynek Genevako Grand Théâtrean ere egingo du debuta, eta Gershwinen An American in Paris obraren ekoizpen osoa zuzenduko du. 2026ko denboraldian, Wayne Marshall Basileako Orkestra Sinfonikoarekin arituko da lanean, eta bira bat egingo du Herbehereetan eta Italian Toscanini Orkestrarekin. Urteari amaiera emateko, Urte Berriko kontzertua zuzenduko du Zurichen, Tonhalle Orkestrarekin.

Organista ere badela aipatu dugu; horri dagokionez, errepertorio oso anitza du eta mundu osoan jotzen du.

2024an, Walt Disney Concert Hallen (Los Angeles), Philharmonie de Essenen, Bruselako katedralean eta Londresko Royal Albert Hallen (Henry Willis organistaren 150. urteurrena gogoratzeko) jo du. 2025eko ekainean, organo-errezitaldiak eskainiko ditu Royal Festival Hallen eta Norwicheko katedralean. 2025eko urrian, Wayne Marshallek organo-errezitaldi bat eskainiko du Dudelangen, eta, ondoren, organo-errezitaldien bira luze bat egingo du Txinan barrena. Luzernako Jaialdian ere egongo da musikari eta zuzendari gisa, KKL aretoko organoaren 25. urteurrena ospatzeko.

Lortu dituen sarien artean aipa daitezke, besteak beste, Bournemouth Unibertsitateko honoris causa doktoretza (2004), Royal College of Musiceko beka (2010) eta Barbadosko Gobernuko Golden Jubilee Award saria (2016). 2021ean, Wayne OBE (Officer of the British Empire) saria jaso zuen Isabel erreginaren eskutik. 2024ko martxoan, Coventry Unibertsitateak honoris causa doktore izendatu zuen Wayne. Wayne Marshall harro dago London Music Fund erakundearen enbaxadore izateaz. Ongintzazko erakunde horren helburua da komunitate behartsuetako haurrei kalitate handiko musika-hezkuntzarako sarbidea ematea.

En 2021, debutó en el Festival Internacional de Edimburgo, con la música de Rodgers y Hammerstein en conciertos con Danielle de Niese, y en 2022, con la Scottish Chamber Orchestra.

Los planes para la temporada 2025/2026 incluyen una extensa gira por Alemania y Reino Unido con la Orquesta Nacional Alemana. En marzo de 2025, dirigirá en Japón con las orquestas de Hiroshima y Nagoya. En abril del mismo año, Wayne Marshall dirigirá la producción completa de Peter Grimes en la Ópera de Lyon y en junio actuará en el Festival de Primavera con la Orquesta de la Radio Checa.

Durante el verano de 2025, Wayne Marshall dirigirá la MDR Orchestra en Leipzig, seguida por la Flanders Youth Orchestra y la Filarmónica de Bruselas, y en octubre estará en el Musikverein de Viena con la Tonkünstler Orchestra.

Wayne también debutará en el “Grand Théâtre” de Ginebra dirigiendo la producción completa de An American in Paris de Gershwin. En la temporada 2026, Wayne Marshall actuará con la Orquesta Sinfónica de Basilea y realizará una gira por los Países Bajos e Italia con la Toscanini Orchestra. Terminará el año dirigiendo el concierto de Año Nuevo en Zúrich con la Tonhalle Orchestra.

Como recitalista de órgano, tiene un repertorio excepcionalmente variado y actúa en todo el mundo.

Durante 2024, ha actuado en el Walt Disney Concert Hall en Los Ángeles, en la Philharmonie de Essen, en la Catedral de Bruselas y en el Royal Albert Hall de Londres con motivo de las celebraciones del 150 aniversario del organista Henry Willis. En junio de 2025, ofrecerá recitales de órgano en el Royal Festival Hall y en la Catedral de Norwich. En octubre de 2025, Wayne Marshall ofrecerá un recital de órgano en Dudelange, seguido de una extensa gira de recitales de órgano en China. También actuará y dirigirá en el Festival de Lucerna para celebrar el 25 aniversario del órgano de la sala KKL.

Entre sus distinciones se incluyen un Doctorado Honoris Causa de la Universidad de Bournemouth (2004), una Beca del Royal College of Music (2010), el Golden Jubilee Award del Gobierno de Barbados (2016). En 2021, Wayne fue galardonado con un OBE (Officer of the British Empire) por Su Majestad la Reina Isabel. En marzo de 2024, Wayne fue nombrado Doctor Honoris Causa por la Universidad de Coventry. Wayne Marshall se enorgullece de ser embajador del London Music Fund, una organización benéfica cuya misión es transferir a las comunidades desfavorecidas el acceso de los niños a una educación musical de alta calidad.



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

DENBORALDIA 24 TEMPORADA
25

martxoak 13-14 marzo

Hurrengo kontzertua Próximo concierto

© Vasco Vilhena

Beethoven y el Doctor Atomic

S. Barber: *Adagio para cuerdas*
J. Adams: *Doctor Atomic Symphony*
L. van Beethoven: *Concierto para violín y orquesta en Re Mayor Op. 61*

Sergey Khachatryan, biolina/violín
Joana Carneiro, zuzendaria/directora



Palacio Euskalduna Jauregia



osteguna | jueves 19:30 h
ostirala | viernes 19:30 h



Desde 14,42 €-tik aurrera
Gaztea (<30):
desde 5,41 €-tik aurrera

Taquilla Euskaldunako leihatila
www.bilbaorkestra.eus

